

Axular Lizeoko Mugikortasun Inkesta

Alderdi positiboak

- Sarrera eta irteera eskalonatuak → trafikoa hobeto banatzen laguntzen dute.
- Azpiegitura berriak → espalo berria eta bizikletentzako aparkalekua baloratzen dira.
- Eskolako autobusa → erabiltzen dutenentzat aukera egokia.
- Segurtasuna eta antolaketa → Asier atezainaren lana azpimarratzen da trafikoa bideratzeko.
- Sarbide aukerak → autoz sartzeko eta barruan edo errotondan aparkatzeko aukera.
- Mugikortasun jasagarria → oinez edo bizikletaz doazen familientzat positiboa.

Arazo nagusiak

- Gaizki aparkatutako autoak (espaloietan, zebrabideetan, bigarren ilaran).
- Trafiko handiegia eta trabak ordutegi puntetan (batez ere 16:30etan eta euria egiten duenean).
- Autobusen maniobrak zailak eta DBHtik aurrera autobus zerbitzurik ez.
- Aparkaleku falta eta errotonda/irteera saturazioa.
- Segurtasun arazoak: abiadura handia, umeak eta autoak nahastuta...
- Auzokoein gatazkak espazioaren erabilera desegokiagatik.
- Irisgarritasun urria (haurtxoen kotxeekin zailtasunak eta elbarrituentzako plazarik eza).

Hobekuntza proposamenak

- Eskolako autobusa indartu → ordutegi gehiago, prezio merkeagoa, jarduera eskolaz kanpokoen ondoren ere.
- Antolaketa fisikoko neurriak → espaloietan autoak saihesteko piboteak, zebrabideetan badenak, barandak.
- Sarbidearen berrantolaketa → “Muxu eta agur” jaitsiera azkarrak, sarbideak zabaltzea, aparkaleku disuasorioak, futbol zelaia aldi baterako erabiltzea.
- Ordutegi gehiago eskalonatu → ikasmailen irteerak bat ez etortzeko.
- Trafiko murrizketak → auto partikularrik ez sartzea (irakasleak salbu), hesiak ixtea ordutegi kritikoetan.
- Kontzientziazioa eta kontrola → udaltzaingoaren laguntza, espaloietan aparkatzeagatik isunak, sentsibilizazio kanpainak.
- Mugikortasun jasagarria sustatu → oinez edo bizikletaz joatea, bizikleta tailerrak, Dbizi geltoki gehiago.